

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 276.189 euro jarri du biomasa-fabrika baterako eta Ultzamako Udala birgaitzeko

Barcina Lehendakariak energia-azpiegitura eta udaletxearen birmoldaketa bisitatu ditu

Martes, 12 de febrero de 2013

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina Ultzamara joan da gaur Copos Ultzama enpresak eraiki duen biomasa-fabrika berria bisitatzeko eta udaletxearen birmoldaketa-obrak inauguratzeko. Nafarroako Gobernuak 276.189 euro jarri du, guztira, bi jarduketarako: 60.000 euro energia-azpiegitarako eta 216.189 euro ibarreko udaletxearen birmoldaketarako.



Barcina Lehendakaria, biomasa-fabrikara egindako bisitan.

Yolanda Barcinak bi jarduketa horien balorazio positiboa egin du. Udaletxearen birgaitzeari dagokionez azpimarratu du birmoldaketari esker, herritarrei "zerbitzu hobea" eman ahalko zaiela. Eta biomasa-fabrikari dagokionez, energia-kontsumoa murrizteaz gain, ingurumena zaintzen lagunduko du eta lanpostuak sortzen, garapen iraunkorra bermatzen duten bi alderdi.

Bestalde, Barcina Lehendakariak aipatu duenez, Nafarroako Gobernu Foru Komunitateko biztanle guztiei zerbitzua emateko "kezkaturta eta lanpetuta" dago. Testuinguru horretan, Nafarroaren tokiko maparen berrantolaketa defendatu du "eraginkorragoa" izan dadin eta "zerbitzuak ematen direla bermatzeko".

Biomasa-fabrika

Barcina Lehendakariarekin batera izan dira: Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilari José Javier Esparza; Toki Administrazioako zuzendari nagusi Patxi Pérez; eta udalerriko alkate Patxi Tornaría. Lehendakariak Copos Ulzama eta Pienso Saioa enpresei energia ematen dien biomasa-fabrika bisitatu du lehenik; bi enpresa horiek animalien elikaduraz arduratzen dira eta lursail berean daude. Bertan Copos Ultzamako gerente Mikel Altunak egin dio harrera Lehendakariari.

Bi enpresen energia termikoaren kontsumoa 4.815.200 kWh/urtekoa da; lehen, gasolioarekin eta petrolioaren gas likidotuarekin sortzen zen, eta

327.400 euroko kostua zuen urtean. Fabrika martxan jarrita, ingurune hurbilenetik datorren biomasa erabiltzen duena, kostua 86.500 eurora jaisten da urtean, hau da, urte bakoitzean 241.000 euro aurrezten da.

Fabrikan erabiltzen den biomasa zonaldeko basoetatik dator, eta 62 euro/t-ko kostua du, eta urtean 1.395 t kontsumitzen dela kalkulatzen da. Erregai horrek % 30eko hezetasuna du eta haren berotzeko ahalmena 3,45 kWh/kg-koa da. Gainera, biomasa erregai gisa erabiltzeagatik atmosferara egindako CO2 isurketak 1.125 t-tan aurrezten dira.

Energia-azpiegitura hori eraikitzeko 60.000 euroko laguntza izan da; kopuru horren % 55 Europar Batasuneko funtsetatik dator eta, gainerakoa, Nafarroako Gobernutik.

Udaletxearen birgaitzea

Ondoren, Barcina Lehendakaria, gainerako agintariekin batera, Larraintzarko (Ultzama) udalerrira jo dute, eta bertan Ultzamako udaletxearen birgaitze-obrak inauguratu ditu.

Lan horien barnean, udaletxeak dituen hiru ataletatik biren beheko solairuaren barneko egokitzapena egin da ondorengo aretoak bertan kokatzeko: instalazio-gela (7,83 metro koadro), idazkaritza (14,73 metro koadro), osoko bilkuren aretoa (30,24 metro koadro), administrazioa (59,63 metro koadro), atondoa-itxaroteko gunea (29,22 metro koadro), haize-babesa (7,11 metro koadro), komunak (7,47 metro koadro), alkatetzaren bulegoa (9,87 metro koadro), bigarren bulego bat (13,09 metro koadro) eta artxiboa (67,47 metro koadro). Guztira, 246,66 metro koadroko azalera erabilgarri baten gainean jardun da. Gainera, malda bat eraiki da oztopo arkitektonikoak kentzeko.

Obrak Nafarroako Gobernuaren ekarpena izan dute, 216.189 eurokoa, 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Planaren funtsen kargura eta, guztira, 366.840 euroko inbertsioa egin da.



Esparza kontseilaria, Patxi Tornaría, Barcina Lehendakaria eta Patxi Pérez, Ultzamako udaletxean.